- v erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek hizkuntza horietan idatzitako agiri bat balio osoz aurkez dezaketela zaintzea;
- b maiz erabiltzen diren formularioak eta administrazio-testuak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan, edo bertsiio elebidunetan, jartzea jendearen eskueran;
  - c dokumentuak erregioetako edo eremu urriko hizkuntza batean erredaktatzea baimentzea administrazioako agintariei.
- 2 Jarraian zehazten diren neurriak justifikatzeko besteko erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten lurraldeetako toki eta eskualde mailako agintariei dagokienez, ondokoak baimendu eta/edo sustatzeko konpromisoa hartu dute aldeek:
- a erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera eskualde edo toki mailako administrazioan;
  - b erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek eskaerak ahoz zein idatziz aurkezteko duten aukera;
  - c eskualdeko taldeek beren testu ofizialak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere argitaratzea;
  - d tokiko taldeek beren testu ofizialak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere argitaratzea;
  - e erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako eskualdeko taldeek beren batzarretako eztabaidetan erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzea, baina ez da baztertuko, hala ere, Estatuko hizkuntza ofizialak erabiltzea;
  - f erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako tokiko taldeek beren batzarretako eztabaidetan erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzea, baina ez da baztertuko, hala ere, Estatuko hizkuntza ofizialak erabiltzea;
  - g erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako toponimiako ohiko formak eta zuzenak erabili edo onartzea, beharrezkoa bada hizkuntza ofizialetako izendapenekin batera.
- 3 Administrazioako agintariak edo horien kontura jarduten diren beste pertsona batzuek bermatzen dituzten zerbitzu publikoei dagokienez, erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta hori posiblea den neurrian, konpromisoa hauek hartu dituzte Ituna sinatzen duten aldeek:
- a zerbitzua ematerakoan erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen direla zaintzea; edo
  - b eskaerak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzan aurkeztu eta erantzuna hizkuntza horietan jasotzea baimentzea hizkuntzetako hiztunei; edo
  - c eskaerak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzan aurkeztea baimentzea hizkuntzetako hiztunei.

- |  |   |
|--|---|
| <p>4 With a view to putting into effect those provisions of paragraphs 1, 2 and 3 accepted by them, the Parties undertake to take one or more of the following measures:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a translation or interpretation as may be required;</li> <li>b recruitment and, where necessary, training of the officials and other public service employees required;</li> <li>c compliance as far as possible with requests from public service employees having a knowledge of a regional or minority language to be appointed in the territory in which that language is used.</li> </ul> <p>5 The Parties undertake to allow the use or adoption of family names in the regional or minority languages, at the request of those concerned.</p> | <p>4 Aldeek onartu dituzten 1, 2 eta 3 paragrafoetako xedapenak martxan jartzearren, ondoko neurrietako bat edo batzuk hartzera konprometitu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a idatzizko edo ahozko itzulpena egitera, eskatuz gero;</li> <li>b funtzionarioak eta bestelako agente publikoak kopuru nahikoan erreklutatzea, edo, beharrezkoa bada, horiek prestatzera;</li> <li>c erregioetako edo eremu urriko hizkuntza bat ezagutzen duten agente publikoek destinoa hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan izateko egin ditzaketan eskariak asetzea, ahal den neurrian.</li> </ul> <p>5 Aldeek konpromisoa hartu dute, interesdunek hala eskatuz gero, erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako patronimikoak erabili edo hartzea baimentzeko.</p> |
|--|---|

### Article 11 – Media

- |  |  |
|--|--|
| <p>1 The Parties undertake, for the users of the regional or minority languages within the territories in which those languages are spoken, according to the situation of each language, to the extent that the public authorities, directly or indirectly, are competent, have power or play a role in this field, and respecting the principle of the independence and autonomy of the media:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a to the extent that radio and television carry out a public service mission: <ul style="list-style-type: none"> <li>i to ensure the creation of at least one radio station and one television channel in the regional or minority languages; or</li> <li>ii to encourage and/or facilitate the creation of at least one radio station and one television channel in the regional or minority languages; or</li> <li>iii to make adequate provision so that broadcasters offer programmes in the regional or minority languages;</li> </ul> </li> <li>b i to encourage and/or facilitate the creation of at least one radio station in the regional or minority languages; or <ul style="list-style-type: none"> <li>ii to encourage and/or facilitate the broadcasting of radio programmes in the regional or minority languages on a regular basis;</li> </ul> </li> <li>c i to encourage and/or facilitate the creation of at least one television channel in the regional or minority languages; or <ul style="list-style-type: none"> <li>ii to encourage and/or facilitate the broadcasting of television programmes in the regional or minority languages on a regular basis;</li> </ul> </li> <li>d to encourage and/or facilitate the production and distribution of audio and audiovisual works in the regional or minority languages;</li> <li>e i to encourage and/or facilitate the creation and/or maintenance of at least one newspaper in the regional or minority</li> </ul> | <p><i>11. artikulua – Komunikabideak</i></p> <p>1 Aldeek zenbait konpromiso hartu dituzte erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunei dagokienez, hizkuntzok erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, eta agintari publikoek, modu zuzenean edo zeharkakoan, arlo horretan boterea edo eginkizunen bat duten neurrian, beti ere komunikabideen independentzia eta autonomia printzipioak errespetatuz. Konpromisoak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a irratia eta telebista zerbitzu publikoak diren neurrian: <ul style="list-style-type: none"> <li>i gutxienez irrati-estazio eta telebista-kate bana sortzea erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan; edo</li> <li>ii erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez irrati-estazio eta telebista-kate bana sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo</li> <li>iii beharrezkoak diren xedapenak ematea difusioaren arduradunek erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan egindako emisioak programatu ditzaten;</li> </ul> </li> <li>b i erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez irrati-estazio bat sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo <ul style="list-style-type: none"> <li>ii irrati-programak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean emititzea sustatu eta/edo erraztea;</li> </ul> </li> <li>c i erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez telebista-kate bat sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo <ul style="list-style-type: none"> <li>ii telebista-programak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean zabaltzea sustatu eta/edo erraztea;</li> </ul> </li> <li>d erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako egindako entzunezko eta ikus-entzunezko materialen ekoizpena eta zabalkundea sustatu eta/edo erraztea;</li> <li>e i erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez prentsa-organo bat sortu eta/edo mantentzea sustatu eta/edo erraztea; edo</li> </ul> |
|--|--|

- languages; or
- ii to encourage and/or facilitate the publication of newspaper articles in the regional or minority languages on a regular basis;
- f i to cover the additional costs of those media which use regional or minority languages, wherever the law provides for financial assistance in general for the media; or
    - ii to apply existing measures for financial assistance also to audiovisual productions in the regional or minority languages;
  - g to support the training of journalists and other staff for media using regional or minority languages.
- 2 The Parties undertake to guarantee freedom of direct reception of radio and television broadcasts from neighbouring countries in a language used in identical or similar form to a regional or minority language, and not to oppose the retransmission of radio and television broadcasts from neighbouring countries in such a language. They further undertake to ensure that no restrictions will be placed on the freedom of expression and free circulation of information in the written press in a language used in identical or similar form to a regional or minority language. The exercise of the above-mentioned freedoms, since it carries with it duties and responsibilities, may be subject to such formalities, conditions, restrictions or penalties as are prescribed by law and are necessary in a democratic society, in the interests of national security, territorial integrity or public safety, for the prevention of disorder or crime, for the protection of health or morals, for the protection of the reputation or rights of others, for preventing disclosure of information received in confidence, or for maintaining the authority and impartiality of the judiciary.
- 3 The Parties undertake to ensure that the interests of the users of regional or minority languages are represented or taken into account within such bodies as may be established in accordance with the law with responsibility for guaranteeing the freedom and pluralism of the media.

### *Article 12 – Cultural activities and facilities*

- 1 With regard to cultural activities and facilities – especially libraries, video libraries, cultural centres, museums, archives, academies, theatres and cinemas, as well as literary work and film production, vernacular forms of cultural expression, festivals and the culture industries, including inter alia the use of new technologies – the Parties undertake, within the territory in which such languages are used and to the extent that the public authorities are competent, have power or play a role in this field:

- ii prentsa-artikuluak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean argitaratzea sustatu eta/edo erraztea;
- f i erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen dituzten komunikabideen kostu osagarriak estaltzea, legeak komunikabideentzat, orokorrean, finantza-laguntzarik ezarrita duenean; edo
    - ii dauden finantza-laguntzak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan sortutako ikus-entzunezko ekoizpenei ere ematea;
  - g erregioetako edo eremu urriko hizkuntzan lan egiten duten komunikabideentzako kazetarien eta beste langile batzuen prestakuntza bultzatzea.
- 2 Aldeak konpromisoa hartu dute erregioetako edo eremu urriko hizkuntza edo antzekoa hitz egiten duten hurbileko herrialdeetako biztanleek irratia eta telebista-emisioak modu zuzenean jasotzeko askatasuna izango dutela bermatzeko, bai eta hurbileko herrialdeek hizkuntza horretan egin ditzaketen irratia- eta telebista-emisioen aurka ez egiteko ere. Konpromisoa hartu dute, bestalde, erregioetako edo eremu urriko hizkuntza batean edo antzekoan sortutako informazioaren adierazpen-askatasuna eta horren zirkulazio askea dela-eta idatzizko prentsari ez zaiola inolako murrizketarik ezarriko zaintzeko. Aipatutako askatasunak erabiltzeak betebeharrak eta erantzukizunak dakartza, eta legez ezarritako zenbait formalitate, baldintza, murriztapen edo zehapenen menpe egon daiteke. Horiek guztiak beharrezko neurriak dira, gizarte demokratiko batean, segurtasun nazionalerako, lurralde-osotasunerako edo segurtasun publikorako, ordenaren defentsarako eta krimenaren prebentziorako, osasunaren edo moralaren babeserako, hurkoaren ospearen eta eskubideen babeserako, isilpeko informazioak zabaltzea eragozteko, edo botere judizialaren agintea edo inpartzialtasuna bermatzeko.
- 3 Aldeek konpromisoa hartu dute erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen interesak ordezkatuta egon daitezen edo aintzat har daitezen komunikabideen askatasuna eta pluraltasuna bermatzeko egitekoa duen legearekin bat sor daitezkeen egituretan.

### *12. artikulua – Kultur jarduerak eta ekipamenduak*

- 1 Kultur jarduerari eta ekipamenduei dagokienez – bereziki, liburutegiak, bideotekak, kultur zentroak, museoak, akademi artxiiboak, antzokiak eta zinemak, literaturako eta zinema-ekoizpeneko lanak, kultura herrikoien adierazpenerako lanak, jaialdiak, kultur industriak, eta batez ere teknologia berrien erabilera kontuan hartuta—, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, hizkuntza horiek erabiltzen diren lurraldeari dagokionez, eta agintari publikoak arlo horretan eskumena, boterea edo egitekoa duten neurrian. Konpromiso hauek

- a to encourage types of expression and initiative specific to regional or minority languages and foster the different means of access to works produced in these languages;
  - b to foster the different means of access in other languages to works produced in regional or minority languages by aiding and developing translation, dubbing, post-synchronisation and subtitling activities;
  - c to foster access in regional or minority languages to works produced in other languages by aiding and developing translation, dubbing, post-synchronisation and subtitling activities;
  - d to ensure that the bodies responsible for organising or supporting cultural activities of various kinds make appropriate allowance for incorporating the knowledge and use of regional or minority languages and cultures in the undertakings which they initiate or for which they provide backing;
  - e to promote measures to ensure that the bodies responsible for organising or supporting cultural activities have at their disposal staff who have a full command of the regional or minority language concerned, as well as of the language(s) of the rest of the population;
  - f to encourage direct participation by representatives of the users of a given regional or minority language in providing facilities and planning cultural activities;
  - g to encourage and/or facilitate the creation of a body or bodies responsible for collecting, keeping a copy of and presenting or publishing works produced in the regional or minority languages;
  - h if necessary, to create and/or promote and finance translation and terminological research services, particularly with a view to maintaining and developing appropriate administrative, commercial, economic, social, technical or legal terminology in each regional or minority language.
- 2 In respect of territories other than those in which the regional or minority languages are traditionally used, the Parties undertake, if the number of users of a regional or minority language justifies it, to allow, encourage and/or provide appropriate cultural activities and facilities in accordance with the preceding paragraph.
- 3 The Parties undertake to make appropriate provision, in pursuing their cultural policy abroad, for regional or minority languages and the cultures they reflect.
- hartu dituzte:
- a erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen adierazpidea eta berezko ekimenak sustatzea, eta hizkuntza horietan sortutako lanak eskuratzeko bitartekoak erraztea;
  - b erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan sortutako lanak beste hizkuntza batzuetan eskuratzeko bitartekoak erraztea, eta, horretarako, itzulpen-, bikoizketa-, postsinkronizazio-, eta azpitulazio-lanak lagundu eta garatzea;
  - c beste hizkuntza batzuetan sortutako lanak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan eskuratzeko bitartekoak erraztea, eta, horretarako, itzulpen-, bikoizketa-, postsinkronizazio-, eta azpitulazio-lanak lagundu eta garatzea;
  - d zenbait kultur jarduera abiarazteko edo horiei laguntzeko ardura duten organismoek beren ekimeneko edo beraiek laguntzen dituzten ekimenetan erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen ezagutza eta erabilera neurri egokian integratzen dutela zaintzea.
  - e erregioetako edo eremu urriko hizkuntza, bai eta beste biztanleen hizkuntzak ere, menperatzen dituen pertsonala zenbait kultur jarduera abiarazteko edo horiei laguntzeko ardura duten organismoen eskueran jartzen laguntzea;
  - f ekipamenduak hornitzerakoan eta kultur jarduerak programatzerakoan, erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen ordezkariak zuzeneko parte-hartzea izan dezatela bultzatzea;
  - g erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan sortutako lanak bildu, gordailuan jaso eta aurkeztu edo argitaratzeko ardura duen organismo baten edo gehiagoren sorrera suspertu eta/edo erraztea;
  - h beharrezkoa bada, itzulpen-zerbitzuak eta terminologia-ikerketako zerbitzuak sortzea eta/edo sustatu eta finantzatzea, batez ere, erregioetako edo eremu urriko hizkuntza bakoitzean administrazio-, merkataritza-, ekonomia-, gizarte-, teknologia- edo legeterminologia egokia mantendu eta garatzearen.
- 2 Erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak tradizioz erabiltzen diren lurraldeak ez direnei dagokienez, aldeek konpromisoa hartu dute, erregioetako edo eremu urriko hizkuntzako hiztunen kopuruak horrelakorik justifikatzen badu, kultur jarduera eta ekipamendu egokiak sustatu eta/edo ezartzeko, aurreko paragrafoarekin bat.
- 3 Aldeek konpromisoa hartu dute leku egokia emateko, beren atzerriko kultur politikan, erregioetako edo eremu urriko hizkuntzei eta horiek islatzen duten kulturari.

*Article 13 – Economic and social life*

- 1 With regard to economic and social activities, the Parties undertake, within the whole country:
  - a to eliminate from their legislation any provision prohibiting or limiting without justifiable reasons the use of regional or minority languages in documents relating to economic or social life, particularly contracts of employment, and in technical documents such as instructions for the use of products or installations;
  - b to prohibit the insertion in internal regulations of companies and private documents of any clauses excluding or restricting the use of regional or minority languages, at least between users of the same language;
  - c to oppose practices designed to discourage the use of regional or minority languages in connection with economic or social activities;
  - d to facilitate and/or encourage the use of regional or minority languages by means other than those specified in the above subparagraphs.
- 2 With regard to economic and social activities, the Parties undertake, in so far as the public authorities are competent, within the territory in which the regional or minority languages are used, and as far as this is reasonably possible:
  - a to include in their financial and banking regulations provisions which allow, by means of procedures compatible with commercial practice, the use of regional or minority languages in drawing up payment orders (cheques, drafts, etc.) or other financial documents, or, where appropriate, to ensure the implementation of such provisions;
  - b in the economic and social sectors directly under their control (public sector), to organise activities to promote the use of regional or minority languages;
  - c to ensure that social care facilities such as hospitals, retirement homes and hostels offer the possibility of receiving and treating in their own language persons using a regional or minority language who are in need of care on grounds of ill-health, old age or for other reasons;
  - d to ensure by appropriate means that safety instructions are also drawn up in regional or minority languages;
  - e to arrange for information provided by the competent public authorities concerning the rights of consumers to be made available in regional or minority languages.

*13. artikulua – Ekonomia- eta gizarte-bizitza*

- 1 Ekonomia- eta gizarte-jarduerei dagokienez, aldeek ondoko konpromisoak hartu dituzte, herrialde osorako:
  - a beren legedietatik kanpo uztea ekonomia- eta gizarte-bizitzari buruzko dokumentuetan erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko aukera, arrazoi justifikagarririk gabe, debekatzen edo mugatzen duen xedapen oro, batez ere lan-kontratueta eta dokumentu teknikoetan, esaterako, produktuak edo ekipamenduak erabiltzeko jarraibideetan.
  - b enpresen barne-araudietan eta egintza pribatueta erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera baztertu edo mugatzen duen ezein klausula sartzea debekatzea, gutxienez hizkuntza bera hitz egiten dutenen artean;
  - c ekonomia- eta gizarte-jardueretan erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera ahultzeko asmoa duten praktiken aurka egitea;
  - d aurreko idatz-zatietan azaldutako bitartekoak baino beste batzuk erabilita, erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera erraztu eta/edo sustatzea.
- 2 Ekonomia- eta gizarte-jarduerei dagokienez, aldeek zenbait konpromisoa hartu dituzte, agintari publikoek eskumena duten neurrian, erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurralderako, eta hori posiblea den neurrian. Konpromisoak hauek dira:
  - a finantza eta banaka arloetako arautegien bidez definitzea, merkataritzako erabilerarekin bateragarriak diren baldintzetan, ordainketa-aginduak (txekeak, truke-letrak, etab.) edo beste finantza-agiri batzuek idazterakoan eskualde mailako edo gutxiengoan hizkuntzak erabiltzeko aukera ematen duten modalitateak, edo, horrelakorik ezean, prozesu hori martxan jarri dela zaintzea;
  - b zuzenean beren kontrolaren menpe dauden (sektore publikoa) ekonomia- eta gizarte-sektoreetan, erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzeko ekintzak egitea;
  - c ospitale, zaharren egoitza edo bestelako gizarte-ekipamenduetan, horietara osasuna, adina edo beste arrazoi batzuk direla-eta joan behar izan duten erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunei beren hizkuntzan hartu eta artatzeko aukera eskainiko dietela zaintzea;
  - d modalitate egokiak erabilita, segurtasun-kontsignak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere erredaktatuta egongo direla zaintzea;
  - e agintari eskudunek kontsumitzaileen eskubideei buruz eskainitako informazioak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere erabilgarri bilakatzea;

### Article 14 – Transfrontier exchanges

The Parties undertake:

- a to apply existing bilateral and multilateral agreements which bind them with the States in which the same language is used in identical or similar form, or if necessary to seek to conclude such agreements, in such a way as to foster contacts between the users of the same language in the States concerned in the fields of culture, education, information, vocational training and permanent education;
- b for the benefit of regional or minority languages, to facilitate and/or promote co-operation across borders, in particular between regional or local authorities in whose territory the same language is used in identical or similar form.

### 14. artikulua – Mugaz haraindiko elkartrukeak

Aldeek hartu dituzten konpromisoak:

- a hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten estatuak konprometitzen dituzten alde biko edo anitzeko akordioak aplikatzea, edo horiek amaitzen saiatzea, beharrezkoa bada, estatu horietan hizkuntza bereko hiztunen arteko harremanak erraztearren, bai kulturari, irakaskuntzan, lanbide-heziketan eta hezkuntza iraunkorrean;
- b erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen alde, mugaz haraindiko lankidetzak erraztu eta/edo sustatzea, batez ere hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten eskualde edo toki mailako taldeen artean.

## PART IV APPLICATION OF THE CHARTER

### Article 15 – Periodical reports

- 1 The Parties shall present periodically to the Secretary General of the Council of Europe, in a form to be prescribed by the Committee of Ministers, a report on their policy pursued in accordance with Part II of this Charter and on the measures taken in application of those provisions of Part III which they have accepted. The first report shall be presented within the year following the entry into force of the Charter with respect to the Party concerned, the other reports at three-yearly intervals after the first report.
- 2 The Parties shall make their reports public.

### Article 16 – Examination of the reports

- 1 The reports presented to the Secretary General of the Council of Europe under Article 15 shall be examined by a committee of experts constituted in accordance with Article 17.
- 2 Bodies or associations legally established in a Party may draw the attention of the committee of experts to matters relating to the undertakings entered into by that Party under Part III of this Charter. After consulting the Party concerned, the committee of experts may take account of this information in the preparation of the report specified in paragraph 3 below. These bodies or associations can furthermore submit statements concerning the policy pursued by a Party in accordance with Part II.
- 3 On the basis of the reports specified in paragraph 1 and the information mentioned in paragraph 2, the committee of experts shall prepare a report for the Committee of Ministers. This report shall be accompanied by the comments which the Parties have been requested to make and may be made public by the

## IV. ZATIA ITUNAREN APLIKAZIOA

### 15. artikulua – Aldizkako txostenak

- 1 Jarraitutako politikari buruzko txostena aurkeztuko diote aldeek, aldian-aldian, Europako Kontseiluko idazkari nagusiari, Ministroen Kontseiluak ezarriko duen eran, eta Itun honetako II. zatiarekin bat. Aldeek III. zatiko xedapenetatik bere egin dituztenak aplikatzeko hartu dituzten neurriak buruzkoa izango da txosten hori. Alde bakoitzak Ituna berarentzat indarrean sartu ondoko lehenengo urtean aurkeztu behar du, beste txostenak, berriz, lehenengoa aurkeztu ondoren, hiru urtean behin aurkeztu behar dira.
- 2 Aldeek jendaurrean jarriko dituzte beren txostenak.

### 16. artikulua – Txostenen azterketa

- 1 15. artikuluan xedatutakoa betez Europako Kontseiluko idazkari nagusiari aurkeztuko zaizkion txostenak 17. artikuluan xedatutakoari jarraiki osatutako adituen batzordeak aztertuko ditu.
- 2 Ituna sinatu duen aldeetako baten lurraldean legez eraturako erakundeek eta elkarteek Alde horrek hartutako konpromisoen inguruko gaiez ohartarazi ahal izango dute adituen batzordea, Itun honetako III. zatia jarraiki. Alde interesatuari galdetu ondoren, adituen batzordeak aintzat har ditzake informazio horiek artikuluko honetako 3. paragrafoan aipatzen den txostena prestatzerakoan. Erakunde eta elkarte horiek, bestalde, Alde batek egindako politikari buruzko adierazpenak egin ahal izango dituzte, II. zatiarekin bat.
- 3 1. paragrafoan aipatutako txostenak eta 2. paragrafoan aipatutako informazioak oinarri hartuta, Ministroen Kontseiluentzako txosten bat prestatuko du adituen batzordeak. Txosten horri aldeei eskatutako zaizkien oharra gehituko zaizkio; horiek guztiak jendaurrean jarri ahal izango ditu Ministroen Kontseiluak.

Committee of Ministers.

- 4 The report specified in paragraph 3 shall contain in particular the proposals of the committee of experts to the Committee of Ministers for the preparation of such recommendations of the latter body to one or more of the Parties as may be required.
  - 5 The Secretary General of the Council of Europe shall make a two-yearly detailed report to the Parliamentary Assembly on the application of the Charter.
- 4 3. paragrafoan aipatutako txostenak adituen batzordeak Ministroen Kontseiluari egindako proposamenak jasoko ditu, bereziki, Kontseiluak, beharrezkoa bada, Alde bati edo batzuei egingo dizkien gomendioak prestatzearren.
  - 5 Europako Kontseiluko idazkari nagusiak bi urteko txosten xehatua, Itunaren aplikazioari buruzkoa, egingo dio Parlamentu-batzarrari.

#### *Article 17 – Committee of experts*

- 1 The committee of experts shall be composed of one member per Party, appointed by the Committee of Ministers from a list of individuals of the highest integrity and recognised competence in the matters dealt with in the Charter, who shall be nominated by the Party concerned.
  - 2 Members of the committee shall be appointed for a period of six years and shall be eligible for reappointment. A member who is unable to complete a term of office shall be replaced in accordance with the procedure laid down in paragraph 1, and the replacing member shall complete his predecessor's term of office.
  - 3 The committee of experts shall adopt rules of procedure. Its secretarial services shall be provided by the Secretary General of the Council of Europe.
- 1 Adituen batzordearen osaeran Alde bakoitzeko kide bana egongo da. Kide hori Ministroen Kontseiluak aukeratuko du Alde bakoitzak proposatutako zerrendako pertsonen artean; zerrenda horretan egongo direnak zuzentasun osoko pertsonak izango dira eta karta jorratzen dituen arloetan aintzatetsitako gaitasuna dutenak.
  - 2 Adituen batzordeko kideak sei urterako aukeratuko dira eta horien agintaldia berritu ahal izango da. Kide batek ezin badu bere agintaldia bete, 1. paragrafoan aurreikusitako prozedurari jarraiki ordezkatu da, eta hori ordezkatzeko izendatutako kideak lehengoaren agintaldia bukatuko du.
  - 3 Adituen batzordeak onartuko du bere barne-araudia. Batzorde horren idazkaritza Europako Kontseiluko idazkari nagusiak bermatuko du.

### **PART V FINAL PROVISIONS**

#### *Article 18*

This Charter shall be open for signature by the member States of the Council of Europe. It is subject to ratification, acceptance or approval. Instruments of ratification, acceptance or approval shall be deposited with the Secretary General of the Council of Europe.

#### *Article 19*

- 1 This Charter shall enter into force on the first day of the month following the expiration of a period of three months after the date on which five member States of the Council of Europe have expressed their consent to be bound by the Charter in accordance with the provisions of Article 18.
- 2 In respect of any member State which subsequently expresses its consent to be bound by it, the Charter shall enter into force on the first day of the month following the expiration of a period of three months after the date of the deposit of the instrument of ratification, acceptance or approval.

#### *Article 20*

- 1 After the entry into force of this Charter, the Committee of Ministers of the Council of Europe

### **V. ZATIA AZKEN XEDAPENAK**

#### *18. artikulua*

Itun hau Europako Kontseiluko kide diren estatuek sina dezakete. Berretsi, onartu edo onetsi egin beharko da. Berretsi, onartu edo onesteko agiriak Europako Kontseiluko idazkari nagusiari utzi beharko zaizkio gordailuan.

#### *19. artikulua*

- 1 Itun hau Europako Kontseiluko bost kidek, 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, Itunarekin konprometituta daudela onartzen duten egunetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epea amaitu osteko hileko lehenengo egunean sartuko da indarrean.
- 2 Itunarekin konpromisoa hartzeko prest daudela beranduago adierazten duten estatuen kasuan, berretsi, onartu edo onesteko agiria gordailuan utzi den egunetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epea amaitu osteko hileko lehenengo egunean sartuko da indarrean Itun hau.

#### *20. artikulua*

- 1 Itun hau indarrean sartu ondoren, Europako Kontseiluko Ministroen Lantaldeak bere esku

may invite any State not a member of the Council of Europe to accede to this Charter.

- 2 In respect of any acceding State, the Charter shall enter into force on the first day of the month following the expiration of a period of three months after the date of deposit of the instrument of accession with the Secretary General of the Council of Europe.

#### Article 21

- 1 Any State may, at the time of signature or when depositing its instrument of ratification, acceptance, approval or accession, make one or more reservations to paragraphs 2 to 5 of Article 7 of this Charter. No other reservation may be made.
- 2 Any Contracting State which has made a reservation under the preceding paragraph may wholly or partly withdraw it by means of a notification addressed to the Secretary General of the Council of Europe. The withdrawal shall take effect on the date of receipt of such notification by the Secretary General.

#### Article 22

- 1 Any Party may at any time denounce this Charter by means of a notification addressed to the Secretary General of the Council of Europe.
- 2 Such denunciation shall become effective on the first day of the month following the expiration of a period of six months after the date of receipt of the notification by the Secretary General.

#### Article 23

The Secretary General of the Council of Europe shall notify the member States of the Council and any State which has acceded to this Charter of:

- a any signature;
- b the deposit of any instrument of ratification, acceptance, approval or accession;
- c any date of entry into force of this Charter in accordance with Articles 19 and 20;
- d any notification received in application of the provisions of Article 3, paragraph 2;
- e any other act, notification or communication relating to this Charter.

In witness whereof the undersigned, being duly authorised thereto, have signed this Charter.

Done at Strasbourg, this 5th day of November 1992, in English and French, both texts being equally authentic, in a single copy which shall be deposited in the archives of the Council of Europe. The Secretary General of the Council of Europe shall transmit certified copies to each member State of the Council of Europe and to any State invited to accede to this Charter.

izango du Europako Kontseiluko kide ez den edozein estaturi Itunari atxikitze gongbita egitea.

- 2 Itunarekin bat egin duen edozein estaturen kasuan, atxikitze-agiria Europako Kontseiluko idazkari nagusiari gordailuan utzi zaion egunetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epea amaitu osteko hileko lehenengo egunean sartuko da indarrean Itun hau.

#### 21. artikulua

- 1 Estatu guztiek, Ituna sinatzerakoan edo Ituna berretsi, onartu, onetsi edo horri atxikitze agiria gordailuan uzterakoan, erreserba bat edo gehiago aurkez diezaiekete Itun honetako 7. artikuluko 2tik 5erako paragrafoei. Ez da beste erreserbarik onartuko.
- 2 Aurreko paragrafoaren arabera erreserbaren bat aurkeztu duen edozein Estatu sinatzaileek erreserba hori osorik edo zati batean ken dezake; horretarako, jakinarazpen bat bidali behar dio Europako Kontseiluko idazkari nagusiari. Erreserba kentzeak idazkari nagusiak jakinarazpena jaso duen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

#### 22. artikulua

- 1 Alde guztiek, edozein unetan, Itun hau salatu dezakete; horretarako, jakinarazpen bat bidali behar diote Europako Kontseiluko idazkari nagusiari.
- 2 Salaketak idazkari nagusiak jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita sei hilabeteko epea amaitu osteko hileko lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

#### 23. artikulua

Europako Kontseiluko idazkari nagusiak Kontseiluko kide diren estatuei eta Itunari atxikitako estatu guztiei jakinaraziko dizkie:

- a sinadura guztiak;
- b Gordailuan utzi diren Ituna berretsi, onartu, onetsi edo horri atxikitze agiri oro;
- c Itun hau, 19 eta 20. artikuluei jarraiki, indarrean sartzen den data oro;
- d 3. artikuluko 2. paragrafoko xedapenak betez jasotako jakinarazpen oro;
- e Itun honekin zerikusia duen egintza, jakinarazpen edo komunikazio oro.

Horri guztiari jarraiki, behean sinatzen dutenek, horretarako behar bezala ahalmenduta, Itun hau sinatu dute.

Strasbourgen egina 1992ko azaroaren 5ean, frantsesez eta ingelesez, testu biak balio berekoak izanik, Europako Kontseiluko artxiboan jasoko den ale bakarrean. Europako Kontseiluko idazkari nagusiak kartaren kopia ziurtatuak bidaliko dizkie Europako Kontseiluko kide diren estatu guztiei eta Itun honi atxikitze gongbita egin zaien estatu guztiei.